

# Ezer erakutsi beharrik gabe

Irati Majuelo

**O**paroa da, inolako zalantzarik gabe, Juan Luis Zabalaren obra literarioa, 1980ko hamarkadatik gaur egunera arte zabaltzen dena, jarraitutasun sendoz egin ere. Nahiz eta oro har narratibaren ardatz den, ez da hau poesiara salto egiten duen lehen aldian, aurretik *Hautsia natza* (2000) eta *Ez dut nik asmatu* (2017) argitaratu ostean idatzi baitu *Mina hartzeko ere* (2022). Poesian bide bat egin da, bada, ahots poetiko propioa duen idazlea aurki daiteke liburua honetan.

Aurreko lanen ildotik, tonu pessimista batek bustitzen ditu poemotako asko, ez etsipenaren edo tragediaren aldarri egiteko, baizik eta bizitzaren alderdi inperfektua onartzeko, bere poz

eta minekin. Gizaki akastun gisara aurkezten du bere burua ni poetikoak, eta gizatasun hori da liburua giltzarri interesgarriaren bat. Pessimismoaren gainetik gailentzen da sarri apal-tasuna, eta zintzotasunez iristen dira irakurlearengana mundu



**'Mina hartzeko ere'**

**Idazlea:** Juan Luis Zabala. **Argitaletxea:** Susa.

kontraesankor hau interpreta-tzen duen ahotsaren kontraesana, hala nola ondoko *Lo-kazmin* eta *Ezeren okerrrik ez dela* poemek erakusten duten gisara. Orobat, ironiaren eta esaje-razioaren erabilerak aragotzen du ni poetikoaren inperfekzioa, izaera komikoa ere emanez.

Denborak eragiten duen gain-behera ekidinezina da gai nagusietako bat, norberaren garaia igaro izanaren sentsazioa, baina baita suhartasun horretatik as-katzearen sentitzen den lasaitua ere. Hots, gazte garaiko ametsak, exijentziak eta mira handiak lurrera jaitsita, beste patxada bat deskubritzen dute poemok. Hala, besteak beste, Zabalak ohiko dituen txirriindulzaritza bu-ruzko erreferentziak erabiliz, po-ema esanguratsua idazten ditu indarrez hustuta baina zer galdu-rik gabe, inori ezer erakutsi be-harrik gabe bizitzeaz, idazteaz. Iraganari so egiten dio maiz, eta haurtzaroko unibertsoan aurkitzen ditu jadanik etorkizun bila-katzen ari den orainari heltzeko gakoak, erritmoak, hitzak, dena astiro joan dadin desiratzeko aul-kiak.

Zabalaren estilo poetikoak ez du berezko lirikotasuna, eta era horretan metafora eta sinbolo ohikoen bilaketatik urruntzen da. Poema narratiboak zein exist-entzialistagoak tartekatzen dira, eta idazkerak arruntera jotzen du sarri, errepikapenen edota kale-ko esamoldeen bidez idazlearen lengoia propioa artifiziorik gabe islatuz. Agerikoa da hizkuntzare-kiko kezka nabarmena duela az-koitiarrak, bai zenbait poematan aurkezten dituen go-goetetan, bai darabilen hiztegian. Izan ere, oso ugariak dira hitz jokoeekin, esae-rekin edota asmatu-rik hitzekin osatzen dituen jolas lexikoak, zenbait poema aho-korapiloeta-rra gerturatzen direlarik.

Baina hizkuntzaren erabilera aberatsa eta ausarta askotan esanguratsua bada ere, kontrako efektua ere eragiten du aldizka, hitzen arteko malabarismo bor-txatuek mezua edota interesa ga-larazten baitute. Hala, badira zenbait poema huts geratzen di-renak, airean, kontraste handie-gia eginaz mezu zintzoak, irudi ederrak edota bira umoretsuak (dibertigarriak!) dituztenen alde-an.

Ugariak dira besteak beste, Saioa Alkaiza-ren, Koldo Azkuneren, Juan Jose Pellejeroren, Iker Arriolaren, Iosune Goñiren eta Rakel Pardo-ren lanak batzen ditu argitalpen honek, haiek izan baitira Iruñeko Udaleren egile berriendako iazko literatur lehiaketan saritutako batzuk.



**'Egile berriendako literatur lehiaketa 2021'**

**Egilea:** Askoren artean. **Argitaletxea:** Iruñeko Udala. **Generoa:** Askotarikoa.

**B**esteak beste, Saioa Alkaiza-ren, Koldo Azkuneren, Juan Jose Pellejeroren, Iker Arriolaren, Iosune Goñiren eta Rakel Pardo-ren lanak batzen ditu argitalpen honek, haiek izan baitira Iruñeko Udaleren egile berriendako iazko literatur lehiaketan saritutako batzuk.



**'Lima'**

**Egilea:** Miren Gorrotxategi. **Argitaletxea:** Elkar. **Generoa:** Eleberria.

**E**uskal mitologiako hainbat erreferentzia baliatu ditu Miren Gorrotxategi idazleak *Lima* eleberriaren trama osatzeko. Uda ondoren herrira itzultzean, bata bestearen ondoren helduko zaiz-ki ezustekoak Lima izeneko protagonistari, eta lagunena la-guntzaz joan beharko du miste-rioak argituz.



**'Osaba Petros eta Goldbachen aierua'**

**Egilea:** Apostolos Doxiadis. **Argitaratzailea:** Denon artean. **Generoa:** Eleberria.

**M**atematikari ibilbidea aban-donatu ostean, landako etxe batean itxita bizi da Petros, xake kontuetan murgilduta. Ha-ren iloba liluratuta du, ordea. So-luziorik gabeko proba matemati-ko batek aldatuko du dena.

## Bakea



Imanol Mercero

**M**endi puntan ez, aldirietan dago aito-na Lukasen txabola, AHTa bezalako eraikuntza faraonikoen zurrun-biloan baserria eraitsi ziotenetik. Biloba du Krispin, istorio honeta-ko protagonista, eta bisitatzera gonbidatu du, noizbait izan be-har zuen-eta lehenengo aldian, haurrek oporretan denbora li-brea sobran izaten dutela pentsa-tuta.

Kontakizunak dituen hogeita bi ataletatik, lehen zortzietan aitonak bere unibertsoa erakusten dio Krispini, ingurunearekin bat eginda bizi delako aitona: atearen karranka biolin hotsa da haren-tzat, leiho bazterreko Xilbestre armiarma eta Clementina saga dituen adiskide ugarietatik bi baino ez dira, eta zuhaitzen hosto artetik txistutka ari den haizeta nat-uraren mintzoa.

Krispini hura aitonaaren erre-suma iruditzen zaio, eta miraz dago.

Hemendik aurrera, ordea, aitonaren makalaldia pasatu be-harko dute, eta amak eta izebak ulertu beharko dute ezin dutela aitona etxezulo batean sartu, bihotzekoak berriz jotzeko arris-kuia izanda ere.

Narrazio lineal eta irakurterra-za da, lehen irakurraldi luzeak egiteko aproposa.



**'Aitona Lukasen txabola'**

**Idazlea:** Pello Añorga. **Ilustratzailea:** Alexf. **Argitaletxea:** Elkar.

## Behar dugu



Imanol Mercero

**U**da da denbora infi-nituen garaia. Edo izan daiteke, bederen, aukera emanez gero. Demagun herri txiki batean ba-gabiltza, inguruan bainua har-tzeko igerileku edota errekarrekin (biak batera are hobeto), ilunaba-rrak pizten dituen kaleko solasal-di eta jolasekin, soilik traktorea-ren noizbehinkako hotsak estal-tzen duen txori eta zomorro soinu bandarekin...

Baina beti ezin gara halako trantzean bizi. Orduan komeni zaigu *Errota zaharreko kluba* bezalako eleberritxoak eskura izatea.

Hamar ataletan banatutako le-tra txikiko 72 orrialde hauetan pausaldia egin ez, paradisu har-tan senti gaitzeko.

Bost neska-mutikoko kuadri-lla baten bizipenak aurkituko di-tugu bertan. Animalia zauritu eta

baztertuen defentsan egingo di-tuzte ahaleginak, jendez hustuta-ko herri mamuari egingo diote bisita, eguzkitan erreko dira, ler-txunaren irla bisitatu dute ibaian, neskato elbarria paseatu-ko astotxoan, masustak bilduko marmelada egiteko... eta dena denbora infinituan, atzo eta bihar baino urrunago ezer ez dagoen garai mitikoan.

Ilustrazioek narrazioa ederki janzen dute, giroa eta gertaka-riak nolakatzean.



**'Errota zaharreko kluba'**

**Idazlea:** Paddy Rekalde. **Ilustratzailea:** Alex Orbe. **Argitaletxea:** Elkar.